



HERRIKO KONTSEILUKO ERABAKIA ORTZAIZEKO HERRIA

2024ko apirilaren 4ko bilkura

Bi mila eta hogeita lauko apirilaren lauan, arratseko zortzitan, Ortzaizeko Herri Biltzarra ohi bezala deitua izan-eta, legeak behartzen duen kopuruan bildu da, biltzarren ohiko lekuan, Jean-Marc OÇAFRAIN auzapeza lehendakari izanik,

Hor zirenak : AYÇAGUER Elorri, CASIRIAIN Elena, CHAMALBIDE Corinne, DACHAGUER Peio, FALXA Odile, GOICOECHEA Iñaki, HEGUY Antton, IDIART Claudine, IÑARRA François, IRIART Jean Claude, JORAJURIA Ramuntxo, LEKUMBERRY Xantxo, MATEO Jean François, OÇAFRAIN Jean-Marc, PERUSANSENA Elodie.

Bilkurako idazkari izendatua izan da : IDIART Claudine.

Deialdiaren eguna : 2024ko martxoaren 29a

Afitxatze eguna : 2024ko martxoaren 29a

11. ERABAKIA: HAURRAK JANTOKIAN ZAINTEZKO DIRULAGUNTZA SAINT MICHEL ESKOLA PRIBATUARI ESLEITZEA (7.5 nomenklatura– Dirulaguntzak)

Auzapezak jakinarazi du herriko eskola pribatuek Ortzaizeko jantokia erabiltzea erabaki dutela. Zehaztu du, jantoki denboran haurren zaintzeko laguntza hautazkoa dela.

2023-2024 ikasturterako, Saint Michel eskolan eskolaratuak diren herriko haur kopuruaren arabera 164,23 euroko laguntza ematea proposatu du.

Herri Biltzarrak, Auzapezaren azalpenak entzun eta deliberaturik,

- **ERABAKI DU**, Saint Michel eskolan ikasle eta Ortzaizen bizi diren haurrentzako 164,23 euro ematea, jantoki denboran haurren zaintzeko laguntza gisa, hots 2 135 € (13 haur x 164,23 euro).

- **ZEHAZTU DU**, uneko aurrekontuan horretarako kredituak badirela.

- **AGINDU DIO**, Auzapezari, dirulaguntzaren ematea.

Kide kopurua : 15

Hor zirenen kopurua : 15

Balizko boz kopurua : 15

ALDE : 12

KONTRA : 0

ABSTENTZIO : 0

Gorago eman egun, hilabete eta urtean, presente ziren kideek erregistroa izenpetu dute. Laburpen egiaztatuaren baliokoa.

ORTZAIZEN, 2024ko apirilaren 4an

Auzapeza,
Jean-Marc OÇAFRAIN

Betegarria bilakatu den akta,
2024/04/19an publikatu edo notifikatu ondoan,
Eta Prefeturan pausatu ondoan 2024/04/19an.